

HIZKUNTZA-BIKOTEA

euskara



Zer da hizkuntza-bikote bat ?

Bikote bat, hizkuntza desberdinetako bi pertsonen arteko jakitate trukaketa bat da. Norberak bere hizkuntza eta kultura ezagutarazten dizkio besteari. Sistema horri esker, hizkuntza kurtsoen osagarri baita, ahozko adierazpena hobetzen ahal da. Era berean, kanpotik etorritakoei Hendaiarrekin topo egin eta hirian aiseago txertatzeko aukera ematen die.

Antolatuak diren topaketetan - horien maiztasun eta tokia bikoteak berak finkatuak baitira -, denbora bi hizkuntzen artean erdibitua da. Norbera egokitzen zaio ikasteko asmoa duenaren maila eta beharrari.

Toki desberdinetan maiz elkartuz, egoera desberdinak sortzen dira eta hiztegi zabalago bat ikas daiteke.

Bikoteak berak kudeatzen ditu topaketak. Hizkuntza maila, solasaldien gaiak, norberak bestearengandik espero duena (gramatika edo ahoskera zuzendu, hiztegia aberastu), horiek oro bien artean erabakitzen dira. Bikote bakoitza besteetatik desberdina da.

Nola funtzionatzen du bikoteak ?

Gazte Informazio Bulegoan datu-base bat aurkituko duzu. Izen ematea egin eta zure itxaropenari dagokion pertsona bat bilatzen ahalko duzu. Pertsona egokia aurkituz gero, GIBko langile batek pertsona horrekin jarriko zaitu kontaktuan (alabainan, izengoitiak baizik ez dira publikoki agertzen). Gero, bien artean sortuko dituzue zuen bikotearen arauak. Zuen arteko topaketak antolatuko dituzue, baldintza batzuk finkatuz. Zinemara, antzerkira, baso bat edatera joaten ahalko zarete, zuen hautuen arabera.

Bikotea bestelako kultura bat ezagutzeko parada bat da. Beraz, ausart zaitezte galderak egitera... gure lurraldea bisita ezazue... sukaldaritza errezetak truka itzazue ! Zenbat eta egoera gehiago ezagutu, hainbat eta gehiago ikasiko duzue.

Eta ez baduzu egun aurkitzen, har ezazu pazientzia : zure eskaera atxikitzen dugu eta Gazte Informazio Bulegoan afixaturik egonen da. GIBra itzul zaitezke noizbehinka edo gure deiaren zain egon.

Uste duzu mailarik ez duzula bikote bat osatzeko ?

Ez izan beldur ! Bikotea trukaketa bat da. Mailak ez du garrantzirik. Bistan dena, bietarik batek ere ez badu bestearen hizkuntza ezagutzen, komunikazioa zailagoa izanen da. Baina hizkuntza bat ongi menperatzen duen pertsona bat bere hizkuntza gutxi ezagutzen duen norbaitekin elkar daiteke. Topaketetan egin behar ez dena, hizkuntza bat lehenestea da bestearen kalterako.

Ikasteko gogo bizia duzu ?

Zergatik ez osatu hainbat bikote ? Pertsona desberdinekin elkar zaitezke, ama hizkuntza berakoak izan ala ez !

Argibide gehiago lortu nahi baduzu ekintza horretaz edo bideratuak diren hizkuntza bikoteengandik, harremanetan sar zaitez **Gazte Informazio Bulegoneko** animatzaileekin : 15 Portuko karrika, +33(0)5 59 20 41 41 – bjj@hendaye.com

